

noaia

**Erroizpeko ura
etxeko iturrian da
berriro**

**Bazpi txirrindulari
taldea denboraldi
ona osatzen ari da**

**BIZIKLETENTZAT ETA OINEZKOENTZAT
SARBIDEA MOZTUTA**
Lanegunetan: 8:00etatik 19:00etara



**ACCESO CORTADO A
BICICLETAS Y PEATONES**
Laborables: De 8:00 a 19:00

**SANTUENEATIK AMIDI-ZUBIETARAINO
ERREPIDEA ITXITA LANENGATIK**

2018-07-09tik
2018-08-31ra



Del 09-07-2018
al 31-08-2018

**CARRETERA CORTADA POR OBRAS
DESDE SANTUENEA HASTA AMIDI-ZUBIETA**

**Amiri-Santuenea arteko bidea itxi dute,
erraustegirako gas-hodia txertatu dezaten**

Aldizkariko "Gazi, gozo, geza" atala orain ere noaua.eus web orrian



http://www.

Etxebizitzak, garajeak, motorra, lanpostuak, trukean... Zure oharra Internet bidez igo eta kontsulta dezakezu

www.noaua.eus

MERKATU TXIKIA

noaua



antenas
Telemar

1969. urtetik gipuzkoarrei zerbitzua ematen. Telekomunikabideetan goi mailako teknikariak.



elkano kalea 13 HERNANI

Tlfnoa. 943 55 33 99
info@antenastelemar.com

6855 zenb. telekomunikabide erregistroan

ELEKTRIZITATE-
ELEKTRONIKA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

ADMINISTRAZIOA

ENERGIA ETA URA,
PRODUKZIO ZERBITZU
ETA MANTEN.

Usurbilgo Lanbide Eskola

MATRIKULAZIOA!

www.lhusurbil.eus

UZTAILAREN 12TIK 18RA (BIAK BARNE)



Gai eta Enk. Muzela
ZIKLOAK

Lanerako Prestakuntza
IKASTAROAK

Berrikuntza
PROIEKTUAK

...



USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA

CIFP USURBIL LHII

Albiste iruditan

Etenik gabeko kexua

Astelehen goizean, aldameneko argazkia eta ondoko hitzok jaso genituen NOAA!ren posta elektronikoan: "Igande gauean (22:00 aldera) Ucin erraustegiari kompetentzia egin nahian. Usurbilgo herritar baten partez". Ez da antzeko kexua jasotzen dugun lehen aldia. Alderantziz, azken urteotan aldiro iritsi zaizkigu antzeko idatziak.

Herritar honena ez da kexu isolatu bat. Iazko urrian, Anerreka Ingurumen Elkar-tea osatu zen Usurbilen: "herriko lurra, aire eta uraren kalitatearen alde lan egiteko, eta ondorioz, guztion osasunaren alde". Hein handi batean, Ucin eta Ucin-en moduko kasuak izan dira Anerrekaren kezka iturri nagusiak. Maiatzean, herri batzar bat deitu zuten eta besteak beste bi gai hauek landu zituzten: uraren kalitatea (Harane erreka) eta aire eta lurraren kalitatea (Luzuriaga eta Ucin).



Argazkia pasa den igandekoa da eta Atxegaldetik egina dago.

Laburrean

Eskuko telefonoak batzeko elkartasun kanpaina

"Eskuko telefonoak biltzen ari gara, Patologia Mitokondrialak aztertzen jarraitu dezaten". Udarregi ikastolako ikasle batzuk jarri dute kanpaina hau martxan. Mapfre bulegoan utzi ditzakezue.

Goi tentsioko linea baimendua

Erraustegia hornituko duen goi tentsioko linea eraikitzea baimendu du Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Gipuzkoako lurralde-ordezkariek Urnieta eta Hernaniko lurretan.

Opor aurreko azken astekaria

Uztailaren 20an argitaratuko dugu opor aurreko azken NOAA! astekaria. Ohar edo zorion agurrik baldin baduzue, hilaren 16rako helarazi erredakzioa@noaua.eus helbidera edo goitзара.

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatorak:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Jon

Galbete.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Aritz Gorriti

Eta beste bat, eta beste bat...

Erraustegiak geratzen edo proiektuen aurkako epaiak kalera-tzen doaz gugandik urrun. Parisen Vaux-le-Pénilgo erraustegiak baimendutakoa baino 2.200 aldiz dioxina gehiago isuri eta herritarren osasuna arriskuan jartzea-gatik haren arduradunak zigortu zituzten urte hasieran. Florentziako tokiko agintariek eraiki nahi zuten erraustegia ez baimentzea erabaki zuen udaberrian Italiako Estatu Kontseiluak. Irlanda orain. Egunotan sare sozialetan irakurri dugunez, Belfastoko erraustegia bertan behera utzi dute epai-leek, proiektua legezatzet-

ko baimenak era ez legalean eskuratu zituztelakoan. Kasu guztiotan, pentsa daitekeenez, poza eragin dute albisteok tokian tokiko erraustegiaren aurkako herri mugimendu ezberdinetan. Baita Madril-en ere. Espainiko hiriburuko Udalak, 2025ean Valdemingomezeko erraustegia ixtea erabaki du. Gure artean izan dira azken urteotan, handik gertu Rivasen bizi diren hainbat bizilagun haien esperientzia partekatzen.

Gertuago, Nafarroan ere hondakinak erraustea baztertuta dute. Behar ez lukeen arren, Bizkaian bada erraustegia bat, eta Osasuna eta Errausteketa Ikerketa Taldeak salatua

du, legeak finkatutako mugen gainetik dagoela tximiniatik isurtzen duten dioxina edo merkurio kopurua.

Aski ez, soberan behar luke orain arte aipaturikoak atzera egiteko, baina ez. Testuinguru honetan, isolatua geratzen ari da Gipuzkoa hondakinak kudeatzeko eredu ez osasuntsu eta jasangarri horretan. Europa mailan 2020an hondakinak erraustea debekatuko da, eta atzerapenik ez bada, hila-bete gutxi batzuk lehenago, agian azkena izan daitekeen erraustegia eraiki eta martxan jarriko dute Zubietan. Zubietan erraustetaren zero gunean bilakatuko duen azken herrialdea izan gaitzke 2019an.

Atzera kontaketa martxan dela jakina da aspaldidanik. Hainbat herritarrek etxeko leihoak ireki edo balkoira irten besterik ez dute, egunez forma hartzen ari den planta edo gauzez, garabien argi gorri dirdiratsuak ikusteko.

Eta orain, gertuago, Santuenea-Zubieta bidea itxita dago berriz. Hesitua. Iaz urte garai honetan gertatu bezala, erraustegirako gasa sartzeko lanak egin zituzten Amiri inguruan, orain Amiri-Santueña artean. Atzera kontaketa aurrerantz, lanak ere bai. Eta bitartean, sarritan ikusi, entzun, arnasten segi behar dugun kea Atxegalde pareko Ucin-etik. Aski da.

Maialen Unanue | Garazi Lizaso Manterola | **Aritz Gorriti** | Luis Aranalde | Imanol Ubeda | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Greba autobus zerbitzuetan

Greba eta mobilizazio egunak deitu dituzte autobus zerbitzuetako langileek uztailearen 13, 14, 20 eta 21erako, eta eguerdiko 12:30ean Donostiako Bulebarretik abiatuko den manifestazio bana egunotan.

Gipuzkoako errepide bidezko bidaiarien garraioaren hitzarmenean ekainaren 8an

erdietsitako aurrekordia betetzeko patronalak erakutsitako jarrera ezkorrak bultzatu ditu, erabakiok hartzera. Ekainaren 30ean amaitu zen aurreko hitzarmenaren indarraldia. Hitzarmen estatuala izatera igarotzeko arriskua dute.

LAB, ELA, CCOO eta UGT

sindikatuak deitu dituzte grebak eta mobilizazioak. "Argi utzi nahi dugu gure helburua akordatutakoa sinatzea dela, baina ez dugu langileon eskubideekin jolastuko, eta horretarako eskura ditugun tresna guztiak erabiliko ditugu hitzarmen berria lortu arte".

Ordutegi aldaketa, bus taxian

Aurreko astekarian iragarri bezala, bus taxiak urte garai honetara egokitu du bere eskaintza. Uztailean goizez bakarrik ibiliko da: 07:30-08:30, 10:30-11:30 eta 13:00-14:00 artean. Arratsaldean ez da zerbitzurik izango, ezta abuztuaren 31n eta abuztu osoan ere. Irailaren 3an itzuliko da ohiko ordutegira, eta ez irailaren 13an, aurreko astekarian aipatu bezala.

www.noaua.eus

USURBILGO ATARIA



Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA



Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Erroizpeko ura berriz iturrietan

U surbilek duen baliabide natural preziatuetariko baliatzen hasiak dira berriz herritarrek. Erroizpetik datorren uraz ari gara. Uztailaren 4az geroztik herriko hainbat iturrietara heltzen ari da. Guztia, joan den azaroan herrian izandako gastroenteritis brotea detektatu eta berehala Andatza aldetik datorren ur hornidura zortzi hilabetez etenda egon ostean. Ordutik, Añarbetik zetorren uraz hornitu da herri osoa. Bitarte horretan, Udala “ur-sistema berritzen aritu da. Ura hartzeko, kontrolatzeko eta banatzeko sistemak berri eta hobetu dira, eta guztira, 90.000 eurotik gorako inbertsioa egin du Udalak”.

Osasun Sailaren baimenarekin
Proben fasea gainditu eta guztiak ondo funtzionatzen duela frogatu eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren



Ura hartzeko, kontrolatzeko eta banatzeko sistemak berri eta hobetu dira, eta guztira, 90.000 eurotik gorako inbertsioa egin du Udalak.

ERROIZPEKO URAZ

**“Gure baliabide propioei ez diegu uko egin sekula”.
Are gehiago,
“dugunaz harro gaude”,
alkateak Sutegin adierazi zuenez**

baimena jaso ostean Erroizpeko urari herriko hainbat

eremuetara, ez guztietara, sartzeko bidea zabaldu dio berriz Udalak.

Joan den astetik, “Urdaiaga, Santuenea, Txokoalde, Aginaga, Zubieta, Kaxkoko zati bat (Kale Nagusitik behera), eta Osinalde, Zumartegi, eta Ugaldea industriaguneak” Erroizpetik datorren urak hornitzen ditu. Gainerako eremuak Añarbeko urak.

“Ur ona badugu, zer dela eta ez dugu edango?”

Udalak hilabeteotako erronka bete du, berriz ere herrian dugun baliabide natural bat erabiltzera igarotzea. “Ur ona badugu, zer dela eta ez dugu edango?”. Uko egin behar ez zaion herritarren eskubide bati buruz ari garela nabarmentzen zuen Udaletik Xabier Arregi alkateak, berriki gai honi buruz Sutegin egin zuten mahai-inguruan. Argi utzi zuen, “gure baliabide propioei ez diegu uko egin sekula”. Are gehiago, zioenez, “dugunaz harro gaude”.

Usurbilgo ura, gure baliabideak mahai-inguruko beste partaideetako batek, elikaduraren industriaren kontrol-sistemak diseinatzen aditu eta udal aholkulari Valentin Dehesak, “daukazuenez eta gal dezakezuenaz kontzientegoak zarete orain”, gogorarazten zien usurbildarrei.

Gertaturikoaren kronika

Erroizpeko ur horniduran hilabeteotan izandako ete-naldia azaroan izan genuen gastroenteritis brotearen egunetatik dator. Egun haietan bitzakakoaren kronika egin zuen alkateak Sutegiko hitzaldian. Gastroenteritis kasuak antzeman bezain pronto Erroizpeko ur hornidura etetea erabaki zuten, prudentziagatik. Hasi-eran ez zegoen argi, ura egon zitekeela brote haren atzean,

baina berehala Erroizpeko hornidura eten eta Añarbetik zetorren ura kontsumitzera igaro zen herri osoa.

Egun batzuetako tartean etorri zen baieztapena; Erroizpetik zetorren ur kontsumoak eragin zuen brotea. “Akats pilaketa” bat izan zela zioen Usurbilgo alkateak Sutegin. Brotea eman aurretik, euri dezente egin zuen zenbait egunetan. Urak uhartasun

handia zuen eta horren ohar-tarazpen lanak egiten dituen alarma sistemak huts egin zuen. Ondorioz, urak “kloro nahikorik ez” eta bakteriek eragin zuten norobirusa.

Zenbait hobekuntza egin beharra ekarri du horrek. Gastroenteritis brotea eman zenean egun haietako egoera kudeatzeko lan talde bat osatu zuten. Baita ur hornidura sarean zer eta nola hobetu

erabakitzeko ere, Osasun Sailaren, eta herri eta udal zerbitzuen artean. Ura jasotzen den tokietatik etxeetako iturrietarainoko bideak aztertu dituzte. Aurrera begira kontrol sistemak nabarmen zorrozteko hobekuntzak egin dituzte. Helburu argia zuen Udalak; akatsetatik ikasi eta “ahultasun horretatik egoera indartsura pasa beharra”, berriz halakorik gerta ez dadin.

Antxieta
Patri *taberna*
jatetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 • © 688 690 361

ANTXETA
taberna-jatetxea

eguneko menuak
ogitartekoak
plater konbinatuak

Eguzkitza, 4 • tel: 943 37 03 44

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTKEA DOAN!!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

Ibai Arrieta: “Bere lan proiektua garatzeko asmoa duenarentzat, oso erreminta potentea da Kabiene”

Argazkilaritza mundura jauzi egin ostean, eskuartean duen proiektua garatzen ari da Ibai Arrieta usurbildarra Kabiene Elkarlan Gunean. Urtebeteko egonaldia egiten ari da bertan, Usurbilgo Udalak ekintzaileei zuzenduta plazaraturiko Hasiz Hazi beka deialdiari esker. Arrietaren esperientzia bildu dugu lerrotan.

NOAUA! Zerk bultzatu zintuen iazko beka deialdira aurkezte-ra?

Ibai Arrieta: 2017an aurreko lana utzi nuen, argazkilaritzan hasteko apustua egin nuen. Iaz hasi nintzen zenbait gauza martxan jartzen, eta nolabait, beka hau lan hori formalizatze bidean jartzeko aukera proposa izan da. Kabiene bezalako espazio batean lanean aritzeko aukera ematen du. Beka deialdirako bestalde, lan plan bat aurkezten duzu eta horrek zure lanaren oinarriak finkatzea dakar.

Beka abian den artean Be-



“Beka abian den artean Beterri-Buruntza Ekinean zerbitzuen tutoretza eta aholkularitza zerbitzura joaten naiz”.

IBAI ARRIETA

“Etxean dituzun beste zereginetaz ahaztu, Kabiene sartzeko zara eta badakizu zertara zoazen”

terri-Buruntza Ekinean zerbitzuen tutoretza eta aholkularitza zerbitzura joaten naiz. Jarraipena egiten da, eta zailtasunak argitzeko aukera egoten da bertan. Asko laguntzen duen zerbitzua da.

Zure bizi proiektua aldatzeko giltzarria izan da.

Beste sektore batetik nator, argazkilaritza beti presente egon izan arren, profesionalki hasteko pausoa iaz izan zen.

Argazkiliaren ofizioa banakakoa izanik, profesional gehiagorekin partekatuko duzun espazio batean aritzea aberasgarria izango da.

Kabieneko esperientzia oso ona ari da izaten, batez ere hasi berri batentzat, inguruan

badituzulako zure egoera horretatik pasatu diren edo pasatzen ari diren hainbat profesional. Nolabaiteko babesak sentitzen duzu. Bakoitzak bere lana izan arren, ikusgarri egiten duzu zuk pasatutako hori, besteek nola pasatu duten, halako espazio batean sortzen diren elkarriketak, sortzen diren sinergia edo elkarlanak... Proiektua etxean hasi nintzen garatzen, oso gustura, baina Kabiene hastearrekin batera aldaketa ikaragarria nabaritu nuen.

Lantoki propioa izateagatik noski.

Bai. Etxean dituzun beste hainbat zereginetaz ahaztu, Kabiene sartzeko zara eta badakizu zertara zoazen. Errendimendua asko hobetu dudala ikusi dut. Eta leku oso erosoa da, edozein ideia garatzeko, lane-rako.

Erreminta proposa ikusten dut Kabiene bezalako leku bat lanerako, burutzen ari naizen lana garatzeko.

“Bertan gauden guztiak autonomoak gara”

NOAUA! Ekintzaileen proiektuak garabidean jar daitezkeen adibide argia zurea.

Ibai Arrieta: Argazkilaritzaren sektorean, beti gaizki egon den edo nahiko larri egon den sektore bat dela entzun izan da. Baldintzak kontrakoak izanik ere, jarduna eginez, aterabideak badaude.

Kabiene, neure lana garatzeaz gain, elkarte bat gara, eta asanblada bidez funtzionatzen dugu. Elkartean bertan sortzen dira beharrezkoak. Bertan gauden kide bakoitzak Kabieneri berari ere ekarpen bat egiten diogu eta

hori era berean oso aberatsa dela ikusten dut, elkarte zurea sentitzen duzu, bere parte zarela.

Kabiene barrura zein kanpora begira eragin nahi du.

Kabienera gure eguneroko ogia ateratzera goaz, baina bertan gauden guztiak autonomoak gara eta denok dakigu zer suposatzen duen horrek. Ikusgarri egin nahi da, egoera berean egon litekeen herritar edonori laguntza hori emateko. Bakoitzak etxean isolatua lanean aritu beharrean, aberatsa den proiektu batean indarrak batzeko

aukera emateko.

Kabiene urtebeteko egonaldia egiteko beka deialdi berria plazaratu du Udalak. Norentzat izan liteke egokia?

Bere lan proiektua garatzeko asmoa duenarentzat, oso erreminta potentea da. Askotan horrek behartzen zaitu egunerokoan garatzen joatera eta garapen horren emaitzak ikustea. Etxean egonda ere egin daiteke baina nik uste dut proiektua bera asko aberastu eta zure proiektua beste perspektiba batetik ikusteko aukera paregabea ematen duela Kabieneko egonaldiak.

Inguruko babesa

NOAUA! Eta zalantza eta beldurren aurrean, ekintzaile ez da bakarrik egongo.

Ibai Arrieta: Egia da, edozein negozio edo lan ekimen hastean, beldurra edo zalantza oso modu konstantean dauden bi elementu dira. Oinarri oinarrizko lana da honetan norbere proiektua garatzeaz gain, beldur horiek eta oztopo horiek gaintzen joatea. Tutoretza batek, edo inguruko jendearen aholkuek egunerokotasun hori asko arindu eta bideak zabalduko dituzte.

Ainhoa Iribar, TaPuntu kooperatibako kidea: “Guretzako bizi proiektu bat da”

Bizilagun berriak izango ditugu ikasturte berrian, NOAUA! K.E.-tik hurbil. Hernaniko egoitza utzi eta irailetik aurrera, jada berritu eta atontzen ari diren txinatarren saltoki ohira, Antxeta ondoko lokalera datoz TaPuntu-ko kideak, iaz lokal komertzial hutsak biziberritzeko Usurbilgo Udalak plazaraturiko diru-laguntza deialdira aurkeztu eta laguntza jaso ostean. Irailetik aurrera, herri honetan garatzen segiko dute euren proiektua gertuagotik ezagutu nahi izan dugu lerrootan.

Bizilagunak izango gara laster. Nolatan zatozte Usurbila?

Ainhoa Iribar: Beterri-Buruntzako udalen ekintzailletza sustatzeko programa batean parte hartu genuen duela hiru urte. Enpresa sortzeko laguntza, formazioa eta aholkularitza eskaini ziguten. Hor gine-la, Beterri-Buruntzako udalek



Irailetik aurrera, Zubiaurrenea kaleko lokal batean hasiko dira lanean. Irudia: TaPuntu.

AINHOA IRIBAR

“Lau negozio lerro ditugu: marketing digitala; diseinu grafiko eta multimedia zerbitzuak eskaintzen ditugu; formazioa ere bai. Formazio gune hori herrian zabaldu nahi dugu”

Hernanin martxan jarri nahi zuten coworking espazio bat.

Bulegoa behar genuen. Bertan sartu ginen eta jada hiru urte daramatzagu han. 3 kide ginen hasieran baina gaur egun sei gaude eta bulegoa txiki geratu zaigu.

Bulego propio bat aurkitzekotan ginenean, Usurbilgo Udalaren diru-laguntza deialdiaren berri izan genuen. Horri esker, Usurbilen lokal berriak aurkitzen hasi ginen.

Ezustekoa izan genuen, lokal asko zeuden libre, baina

gure beharretara egokitzen ziren askorik ez, Zubiaurrenea kalekoa aurkitu arte. Lokal hau primeran dago, erdigunean, eta guretzat estrategikoa da bertan kokatzea.

Laster gauzatuko duzue leku aldaketa.

Obretan gabilta, nahi baino gehiago luzatuko da. Inaugurazioa irailerako utziko dugu.

Zer da Tapuntu, zer eskainiko duzue?

TaPuntu marketing digitaleko aholkularitza eta garapena eskaintzen duen kooperatiba bat da, gehienbat enpresa txiki eta ertainei beraien nortasuna sareratzen laguntzen dion kooperatiba. Lau negozio lerro ditugu: marketing digitala; diseinu grafiko eta multimedia zerbitzuak eskaintzen ditugu; formazioa ere bai. Formazio gune hori herrian zabaldu nahi dugu.

Ekonomia sozial eraldatzailearen bidetik

NOAUA! Zuena ekintzaile talde gisa definitu liteke?

Ainhoa Iribar: Hiru bazkide hasi ginen. Norbere egoera pertsonal eta profesionala ikusita, neure bi bazkideek beraien artean proiektu bat martxan jartzea erabaki zuten. Zer zerbitzu eta zer produktu eskaini pentsatzen hasi ziren eta nirekin kontaktuan jarri ziren. Berez gu batukada talde batetik ezagutzen ginen. Hortik hasi ginen bilera ezberdinak egiten, eta kasualitatez, Ekofabrika programaren berri jaso genuen. Izena eman genuen askorik jakin gabe, baina hor asko lagundu ziguten gure proiektua martxan jartzen, baita gure proiektua ekonomia sozial eraldatzailearen oinarrietan finkatzen ere; talde bezala

ze aurreikuspen genituen, eta nola, zaindu taldea... Halako faktore ezberdinak aztertzen lagundu ziguten. Gustatzen zaigu argi uztea, pertsona erdigunean jartzen duen proiektu bat garatu dugula, ekonomia sozial eraldatzailearen baitan garatu dugun proiektu bat dela. Guretzako bizi proiektu bat da.

Zuen bizitzan jauzi handia suposatuko zuen, bizi proiektu honen aldeko apustua egiteak?

Guk ez genuen bakarrik buruan, enpresa bat sortu eta hortik bizitzea. Baita horri esker ere gure garapen pertsonala, gu ere profesionalki haztea, eta gizartean eragitea. Kooperatiba izatea erabaki genuen. Aisialdi tal-

de ezberdinetan ibiliak gara, eta elkarte ezberdinetan, askotan, baliabide aldetik laguntza eta elkarlana lortzeko zailtasunak zituztela ikusten genuen. Gure proiektua aurrera eramateko garaian elkarlanean oinarritzea erabaki genuen, beste batzuei laguntzea eta nolabait gizartean eta ingurunean eragitea. Gure lanaren bitartez, agian beste batzuei laguntzeko aukera genuela uste genuen.

Zuen esperientziak argi utzidu, ekintzaile izan eta bide bat egitekeela.

Oro har, jendeari kontatzen diozu halako zerbait martxan jartzeko asmotan zabiltzala, eta mundu guztiak kon-

tuz ibiltzeko esaten dizu, ez duzula laguntzarik izango. Nahiko mezu ezkorrak heldu zitzaizkigun. Baina guk taldea indartsu izan eta argi genuen baliabide guztiak bilatzen saiatuko ginela. Egia esan, eragile ezberdinetatik sorpresa positiboak izan genituen. Adibidez, Beterri-Buruntzako udalek emandako laguntza hori guretzat erabakiorra izan zen, gehienbat lokal edo bulego hori uzteko aukera eman zigutelako. Eta batez ere babes. Gure proiektua aurrera eramateko kontuan hartzen ziguten, deitu egiten ziguten aurrekontu ezberdinak eskatuz eta eragileetatik babes hori nabaritu dugu eta esker-tzekoa da.

Ekintzaileei zuzenduriko laguntza deialdiak

Proiektu bat eskuartean izan edo garatu nahi duen ekintzaileak bi diru-laguntza deialdiotara aurkezteko aukera du:

Lokal komertzial hutsak biziberritzeko udal diru-laguntza deialdia

Jarduera ekonomiko berri bat martxan jarri nahi duen ekintzailearentzat aproposa. Usurbilen hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzea sustatu nahi du Udalak. Horretarako, lokal hauek erabiltzeko hautua egiten duten ekintzaileentzat, alokairu gastuei aurre egiteko diru-laguntza deialdia egin du Udalak:

- Lehenetsuna izango dute: herritarrei eskaintzen ez zaizkien zerbitzuekin lotutako proiektuek, baita ixtera doazen edo itxi berriak diren jardueren jarraipenekoak diren proiektuek ere.
- Ekintzaile eta enpresa proiektuaren betebeharrak: lokalik jabetzan ez izatea, hutsik dagoen Usurbilgo merkataritza lokal bat alokairuan hartzea,



Lokal hutsak erabiltzeko hautua egiten duten ekintzaileentzat, alokairu gastuei aurre egiteko diru-laguntza deialdia egin du Udalak.

UDAL DIRU-LAGUNTZAK

Herrian hutsik dauden merkataritza lokalak biziberritzea sustatu nahi du Udalak

gehienez 5 langile izatea...

- Jarduera mota: txikikazko herri merkataritzako jarduerak, pertsoneri zuzendutako zerbitzuak, biziberritze ekonomiko eta sozialerako lagungarria izan daitekeen jarduera komertziala.

- Lokalaren alokairua: 12 hilabeteko gutxienezko iraupeneko kontratua; gehienezko prezioa, metro karratuko 10 euro.

- Diru-laguntzen zenbatekoa: lehen urtean alokairu gastuaren %40a (gehienez ere 300 euro) eta bigarren urtean gastuaren %30a (gehienez 200 euro).

- Eskerak: udal erregistroan aurkeztu, irailaren 30a baino lehen.

- Informazio gehiago: usurbil.eus
943 371 951.

Hasiz Hazi beka deialdia

Kabiene Elkartearen elkarlan-gunea urtebetez baliatzeko aukera eskainiko dio ekintzaileari Kabiene berak eta Udalak abiatutako beka deialdi honek:

- Nori zuzendua: 2018an enpresa proiektu bat duen ekintzaileari.

- Eskaintzen dena: Kabiene elkartearen elkarlan-gunearen urtebeteko erabilera, diruz ordaindua.

- Bekaren gehieneko zenbatekoa: 1.089 euro (beti ere ekintzaileak 12 hilabeteko erabilera izaten badu Kabiene).

- Lehiakideek bete beharreko baldintzak: Beterri-Buruntzako udalerriren batean erroldatua egotea, adinez nagusia izatea, Usurbilen enpresa bat sortzeko ekimena dutenak izatea,...

- Dokumentazioa eskuratu eta eskabideen aurkezpena: Usurbilgo udal erregistroan.

- Epea: irailaren 30era arte.

- Informazio gehiago: usurbil.eus
943 371 951

Aisialdian eragiteko parekidetasunean hezten

Aisialdi eremuan sortzen diren egoera diskriminatzaileak identifikatu eta kudeatzen ikasi edota sexismoa saihesteko, prestakuntza saioa jaso zuten haur eta gaztetxoekin lanean diharduten begiraleek ekaina amaieran, Usurbilgo Udalak antolatutako ikastaroan.

Haien jardunaz, feminismoan pil-pilean diren gaieez, begiraleen rol, lan eta ardurez hausnartu eta lanketa egin zuten.



Udalak antolatutako ikastaroan begiraleen rol, lan eta ardurez hausnartu eta lanketa egin zuten.

Abiatu da “Laboaren Uztaila”

Martxan da Laboari eskainitako uztailla. Mararen aurreko asteko kontzertuaren ondoren, ostegun honetan Joseba Irazokiren txanda izango da. 22:00etan, Mikel Laboa plazan.

“Gitarrista polifazetikoa da Joseba Irazoki, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena. Folka, rocka, psikodelia, bluesa,... eta tresnen espermentazioa hartzen ditu bere baitan, proposamen artistiko harrigarri eta sailkaezina osatuz. Umorea eta bertuosismoa barra-barra. Honako talde eta proiektutan dabil edo ibili da, besteak beste: Atom Rhumba, Petti eta Rafa Rueda, Duncan Dhu, Mikel Erentxun, Nacho Vegas, Maixa eta Ixiar, Do, On Benito,... Gitarra elektrikoa, ahotsa eta bonboa izango ditu lagun bakar taula gainean, gizon orkestrako errepertorioa erreparatuko duelarik eta, horrez gain, azken urteetan osatu duen taldearekin jotzen dituen abestiak ere ekarriko ditu”.



Mara aritu zen aurreko astean. Euriaren beldur, emanaldia Sutegin egin behar izan zuten. Aste honetan, Joseba Irazoki arituko da Mikel Laboa plazan.

OSTEGUN HONETAN, JOSEBA IRAZOKI

“Gitarrista polifazetikoa da, konposizioan ez ezik inprobisazioaren munduan ere gogo biziz barneratzen dena”

Hurrengoa, Mikel Uraken

Mikel Urakenen emanaldia izango da hurrengo astean.

2000ko hamarkada erdialdean Loan metal taldean egin zituen lehen urratsak. Bakar-

kako ibiliari ingelesez ondutako *Folk Songs for Tormented Souls* (2013) lanarekin ekin zion. Omenaldi xumeak EPan (2014), Anariren bertsio bat eta Mikel Laboaren beste bat sartu zituen. Iazko urte hondarrean Neguaren ostean plaza-ratu zuen. “Euskaraz egindako zazpi folk pieza gordin, biluzi, basa. Euskal kantagintzaren esparruan berrikuntzarako ale bat jarri nahi luke. Mikel, euskara espresibide moduan erabiltzen hasi denetik, beldurra, lotsa eta estiloen zurruntasunak gainditu ditu. Basatia, aske eta ausarta, Michael Gira-

ren disko akustikoak, Richard Dawson-en kantu gordinak eta Mikel Laboaren Lekeitio martzianoenak bezala. Mikelen musika ez da erraz gustatzen den horietakoa. Mikel oso artista pertsonala da, gutxitan ikusten den ausardiaz eta gardentasunez gainera. Deserosoa suerta daiteke, baina arte deserosoa da gugan benetako talka eragin dezakeen bakarra”, Laboaren Uztaileko antolatzaileek aditzera eman digutenez.

Zozketa

Jaialdi autogestionatua denez, borondatea jasoko da. Trukean, euskal musikariaren diskoak zozketatuko dituzte Laboaren Uztailla zikloaren baitan.

Lehen sarituak

Laboaren Uztaileko musikari ezberdinen diskoen lehen zozketa uztailearen 5ean egin zuten. Honako hauek izan ziren zenbaki sarituak: 225, 10, 187, 101, 34, 164, 220, 109.

Saria jasotzeko ostegun honetako kontzertura joateko deia egiten diete saridunei, antolatzaileek.

Zubietako jaietako txartelak

Aurtengoan jai eguna izango ez den uztailearen 25etik 31ra ospatuko diren Zubietako Herri Jaietako hainbat hitzorduetarako txartelak salgai jarri ditu jada Jai Batzordeak Alamandegi jatetxean.

Herri afari zein zikiro janerako txartelak

Uztailearen 27ko herri afarirako hilaren 22ra arte izango dira salgai, hilaren 31ko zikiro janerakoak hilaren 23ra arte.

Jubilatuaren bazkaria

Barazarren

Jai Batzordetik ohartarazi du-

tenez bestalde, uztailearen 28ko jubilatuen bazkaria Barazar jatetxean ospatuko da. Lekua hartzeko deitu uztailearen 21a baino lehen, 634 879 207 (Arantzazu) telefono zenbakira.

Paella janerako oharra

Azkenik, uztailearen 29ko paella janerako, “kuadrilla bakoitza ardura dadila beharrezko osagaiak eta tresneria ekartzeaz. Bertaratzeko asmoa izanez gero, Alamandegin aurkituko duzuen zerrendan apuntatu kuadrilako kide kopurua”.

“Gora San Fermin!”



Uztailearen 6an, eguerdiko 12:00etan lehertu zen festa Iruñean eta baita Usurbilen ere. Udajolaseko LHko begiraleak eta gaztetxoak udale-

txera hurbildu ziren eta bertan egin zuten txupinazioa. Zezenak atera ziren ondoren. Garbia izan zen entzierroa. Ez zen adarkaturik izan.

Erraustegirako gasa sartzeko lanak martxan berriz, oraingoan Amiri-Santuenea artean

Iazko udako irudia errepikatu da aurten. Hainbat oinezko, bizikleta erabiltzaile eta auto gidaarientzat ezinbesteko pasealeku edota komunikazio bidea den Usurbil eta Zubieta arteko bidea itxita dago berriz.

Iaz urte garai honetan gertatu bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak erraustegirako gasa sartzeko obrei ekin die berriz. Duela urtebete, Amiri inguruan egin zituzten lanok. Donostialdekoa den eremuan. Oraingoan, Amiri eta Santuenea artean, Usurbil aldeko lurretan.

NorteGasek hasitako lanok hainbat oinezko eta ibilgailu ezustean harrapatu dituzte. Bai Santuenea aldetik baita Amiri aldetik ere, ingurua zaintzeko jarri dituzten segurtasun agenteak bidea obretarako itxita dagoela ohartarazten zebiltza aste hasieran, bertara gerturatzaren zirenei.

Edozein kasutan, ohartarazpen seinaleak jarrita daude bai Santuenea aldean, baita Zubieta aldean ere, zenbait lekutan. Seinaleotan irakur daitekeen bezala, Amiri-Santuenea arteko bidea itxita egongo da abuztuaren 31ra arte.

Urtebeteko atzerapena

Udaletik ohar bidez gogorazi duten moduan, urtebeteko atzerapenarekin hasi dituzte Usurbilgo lurretan, errauste-



Amiri-Santuenea arteko bidea itxita egongo da abuztuaren 31ra arte.

BIDEA ITXITA

“NorteGasek hasitako lanok hainbat oinezko eta ibilgailu ezustean harrapatu dituzte”

girako gasa sartzeko lanak. “Prozesua luzea izan da, Udalaren aldetik jarritako ukapenak eta baldintzak izan direlako”, adierazi dute.

Ohar bidez oroitarazten dutenez, tarte honetan guztian, lanok egiteko baimena ukatu du Usurbilgo Udalak “aurreikusitako trazaketa ez zelako egokia. Ondoren, herritarrei ahalik eta kalterik txikiena eragiteko moduko neurriak eskatu ziren, beti ere segurtasuna bermatuz”.

Urtebeteko prozesuaren ostean, uztailearen 9an hasitako obrak hiru fasetan gauzatuko dituztela berri eman du Usur-

bilgo Udalak, “herritarrei ahalik eta kalte txikiena eragiteko”. Zehaztu dutenez, “Amiri eta Urteagako baserrien arteko zatia egongo da lehenik; gero, Urteaga eta Ermotegi baserrien artekoa; eta, azkenik, Ermotegitik Santueneako sarrera artekoa”.

Iaz urte garai honetan egingandako obrak eta aste honetan hasitakoak, Zubieta gainean eraikitzen ari diren erraustegia eta gainerako azpiegiturak hornitzeko baliatuko da.

Lan orduetatik kanpo, bidea partzialki irekiko da

Komunikazio bide nagusia da Zubieta eta Usurbil arteko herri bidea, oinezko, kirolari, bizikleta erabiltzaile eta motordun ibilgailu askorentzat. Herritarrei hainbat zerbitzu eskaini ahal izateko ezinbesteko pasabidea.

Iazko udan gertatu bezala,

erraustegirako gasa sartzeko hasi berri dituzten lanek, ibilgailu nahiz herritarren joan-etorria baldintzatuko dute hurrengo asteotan. NorteGasek udako hilabeteok baliatu nahi ditu obrak egiteko, uztaile eta abuztua alegia. Astelehenetik ostiralera egingo dira lanok, 8:00-19:00 artean. “Baliteke, abuztuko larunbat batzuetan lan egitea, 8:00-14:00 artean”, ohartarazi dute Usurbilgo Udaletik.

NorteGasek obren inguruan bizi diren herritarrei gutun bidez jakinarazi dietenez, eta Udaletik ere ohartarazi dutenez, segurtasunagatik obrak egiten ari diren orduetegiaren bidea guztiz itxita egongo da. Baimendutako ibilgailuei soilik utziko zaie igarotzen obretan ari diren orduetan. Lan orduetatik kanpo, motor gabeko ibilgailu eta oinezkoen pasabidea irekiko zaie, alegia, arratsaldeko 19:00etatik goizeko 8:00etara. Obra hauen inguruan bizi eta bide honetatik igarotzea ezinbestekoa duten herritarrei motordun ibilgailuetan igarotzen utziko zaie baita.

Asteburu eta jai egunetan bidea zabalik izango da, abuztuko zenbait larunbatetan izan ezik, larunbat batzuetan erraustegirako gasa sartzeko lanean jardun dezakete eta, 8:00-14:00 artean.

Aldaketak autobus zerbitzuan

Lanok iraun artean, T6 autobus zerbitzua desbideratu egingo dute. Usurbil aldetik Santueneraino helduko da, baina ez da handik Zubieta sartuko. “Lantzadera bat jarriko dute Amiri baserritik Lasartera joateko, eta T6 linearekin sinkronizata egongo da”, berri eman du Udalak. Autobus aldaketa Lasarte-Oriako Euskotrenen geltoki parean kokatua dagoen errotondan egingo dute bidaiariek.

T6 linearekin Lasarterako ohiko geltokian alegia. Zubieta aldetik behin behinean jarritako autobusean datozenak T6ren ohiko ibilgailura igoko dira. Hernani aldetik T6an etorri eta Zubieta aldera doazenean ere gune horretan bertan egingo dute autobus aldaketa.

Aipatu moduan, sinkronizata egongo da guztia. Obren eremutik eta 20an eta 50ean abiatuko da behin behineko

autobus zerbitzua Lasarterantz. Eta 00an eta 30ean Lasarterako aipatu geltokitik obra eremurantz.

Bus taxi zerbitzua bere horretan mantenduko da eta hondakinen bilketa zerbitzua ere bai.

Erraustegiaren kontratuari buruzko xehetasunak agerian

Erraustegiari buruzko kontratuak ezkututzen duena aire-ratzen hasi da GuraSOS, Youtuben martxan duen ZeroZona

kanal berrian. Ekainaz geroztik, ostegunero 19:30ean albistegi, dokumental eta elkarrizketak eskaintzen hasiak dira. Uztailearen 5az geroztik, eta hurrengo hiru asteotan, erraustegiaren kontratuari buruzko ezkutuko xehetasunen berri plazaratuko dute. Uztailearen 5eko emisioa Youtuben duzue ikusgai. Pieza hauek erdaraz sareratuko dituzten arren, euskaraz dokumental gisa plazaratuko da aurrerago.

Kirol jardueretan inklusibotasuna bermatzen

Kirol eremuan inklusibotasuna lantzen duen elkarteak dugu Kemen. Udarregi Ikastolarekin lankidetzan da azken aldian, ikasle guztiek jardueretaz gozatu ahal izatea bermatua izateko. Ikasturtea amaitu baino lehen, Andatzara mendi irteera egin zuten Udarregi Ikastolako LH 6. mailako ikasleek, Kemen elkarteak kideekin. Hantxe zen Iñigo Girado Perez, elkarteak kide eta bolondresa.



Ikasturtea amaitu baino lehen, Andatzara mendi irteera egin zuten Udarregi Ikastolako LH 6. mailako ikasleek, Kemen elkarteak kideekin batera.

Kirol arloan inklusibotasuna bermatzen ahalegintzen den elkarte gisa defini daiteke Kemen Elkarteak?

Iñigo Girado Perez: Bai gehienbat inklusibotasuna bermatzen duen kirol talde bat da. Duela urte dezente sortutakoa. Garun paralisia edo ezgaitasunen bat duten pertsonak kirol munduan sartu ahal izateko aukera bat da.

Ze baliabide eskaintzen dituzue?

Kirol talde ezberdinak; elurretako jarduera ezberdinak, slalom-a, txirrindularitza egokitua, mendia, lasterketak, trekkinga... Erronka bat topatuz

IÑIGO GIRADO PEREZ
“Kemen inklusibotasuna bermatzen duen kirol talde bat da. Garun paralisia edo ezgaitasunaren bat duten pertsonak kirol munduan sartu ahal izateko aukera bat da”

gero, horretarako beharrezko baliabideak eskuratzeko diru-laguntzak lortzen dira.

Nola edo nondik sortzen da

Udarregi Ikastolarekin duzuen hartuemanak?

Iaz jarri ziren lehen aldiz hartuemanetan gurekin. Horrelakoetan gure egutegia eskaintzen dugu baina lanez lepo ginen. Aurten erraz finkatu dugu hitzordua. Ostiral baterako geratuak ginen lehenbizi, baina kasualitatea, euri zaparrada tokatu zen eta astebete atzeratu genuen hitzordua.

Andatzan ibili zineten. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Esperientzia partekatu gisa definitzen ditugu. Protagonista ez da gure baliabideak behar

dituena, gazte taldea baizik. Guk ingurunea pertsona ororen beharretara egokitzen badugu sortuko genuke inklusioa, eta inklusio hitza desagertuko litzateke.

“Guretzat ohore bat da esperientzia horiek partekatzea” Ikastolarekin duzuen lankidetzak segida izango al du?

Hurrengo urtean lasai asko gurekin kontaktuan jarrai dezakete, guk oso gustura egin genuen esperientzia hori. Guretzat ohore bat da esperientzia horiek partekatzea.

Esperientzia positiboa izan da beraz?

Bai. Orain aurrera begira, badauzkagu antolatutak hainbat irteeratxo, baina normalean pixka bat itxaroten dugu. Gure web orrian (gurpiltrek.blogspot.com) egutegitxo bat dugu eta bertan 15 egun falta direnean abisatzen dugu nora goazen. Gurekin etortzera animatzen bada norbait, hortxe gaude, erreminta bat gehiago gara eta disfrutatzeke gaude.

Nazioarteko dantza taldeen erakustaldia

Atzerriko dantzariak bisitan igande honetan (uztailak 15) Usurbilen. Orbeldi D.T.-k antolatuta, Kolonbiako Creadanza Taldea, Poloniako Kostrazane taldea, eta Igorreko (Bizkaia) Arantzarte Dantza Taldea bilduko ditu hitzordua. Europako aipatu bi dantza taldeek Igorrekoak urtero antolaturiko folklore jaialdian parte hartuko dute. Aukera baliatu dute, igande honetan, guztiek Usurbilen erakustaldia eskaintzeko. Kalez kale ibiliko dira lehenik, eta saioa eskainiko dute gero:



Igorreko folklore jaialdian parte hartuko duten taldeak Usurbilen arituko dira igandean.

Uztailak 15, igandea

12:00 Kalejira herriko kaleetan zehar.

13:00 Emanaldia frontoian.

Antolatzaileak: Orbeldi D.T., Udala, Igorreko Arantzarte D.T.

Hurrengo jaiak

Usurbilgo Santixabelak igaro dira, baina festen denboraldia hasi baino ez da egin. Kalezarko eta Usurbilgo parranda egunen ostean, Zubieta, Urdaia eta Atxegaldekoen txanda orain. Dagoeneko festa egun guztion datak finkatuak daude. Segidan dituzue. Festetako egitarau zehatzak eta xehetasun gehiago, astebete barru:

■ Zubietako jaiak:

Uztailak 25-31.

■ Urdaiajako jaiak:

Abuztuak 3,4.

■ Atxegaldeko jaiak:

Abuztuak 24, 25, 26.

Gaurkotasun handiko gaiak Bertsopaper lehiaketan

Uztailearen lehenean ospaturiko bertso saioaren baitan banatu zituzten Bertsopaper Txapelketako sariak. Jon Aizpurua Esnaolak irabazi du 42. Bertsopaper Txapelketa, "Ikusten ez diren kateak" bertso sortarekin. Iñaki Agirresarobe bigarren postuan geratu zen. Zorionak!

'Ikusten ez diren kateak'

■ Doinua: "Gure munduan hedatua da".

■ Egilea: Jon Aizpurua Esnaola.



Jon Aizpurua irabazi zuen Bertsopaper lehiaketa. Iñaki Agirresarobe bigarren saria eskuratu zuen.

Jaio orduko berdin garena
Ez da seinale onena
Zerbait hainbeste errepikatuz
Zer da ezkututzen dena?
Atzean utzia zena
Egun iraganarena
Sufritu zuten miseria da
Testigantza krudelena
Arrox, urdin da biena
Errespetuzko eskema
Baina logela panpin arroxez
Josi zidaten den-dena.

Eskolan ere ez pentsa dena
Arrox koloreko denik
Disimuloan mutilentzako
Bada pribilegiorik
Orain gogora datorzkit
Begiratuaz hemendik
Indar ta kemen hitzak kenduta
Zeuden gure hiztegitik
Hogei neskatootatik
Zalantza asko dauzkata nik
Zergatik ez da ingeniariatza
Ikasitako neskarik?

Baina aukera berdintasuna
Boladan dugun hitza da
Eta lanean kostatu arren
Aukera iritsi hara!
Itzalpeko lana laga
Bulegodun jefa zara!
Eta lehenengo zurrumurrua
"Nola iritsi da hara?"
"-ohe kontuen aupada?"
"-faboreak beharbada?"
Urte luzetan egin den lanak
Non du zuen begirada?

Eta tarteka tokatzen zaigu
Bilera bat edo beste
Korbata asko ikusten dira
Takoiak ez horrenbeste
Askotan hitzaren eske
Ixiltasuna erbeste
Gutaz oroitu gabe ordu ta
Egunak pasa litezke
Horrenbeste gutxieste
Ikaste eta ameste
Eder ta ixil gauden artean
Bileran egon gaitzke.

Parrandarako ere prestatu
Izan gara inoiz eder
Baina ispilu aurrean ezetz,
Jartzazu beste zeozer
Eskote barrura uger!
Gona motza dena izter!
"Gero gizonak ze kulpa dute?"
Dio inork muturroker.
Nere bizitzako txofer
Badauzkat hainbeste maizter
Zer jantzi beldur izango banaiz
Hemen bada zerbait oker

Kalean obrak, andamioak
Ta "kontuz" dion kartela
Zerbait burura eroriko den
Beldurrak gerran bezela
Ze neska tonta, ergela!
Da gremioen epela!
Piropok ta baba sorta bat
Gizonkeri karrusela
Utzia dute zintzela
Nahiago nire okela
Okerrena da eguneroko
Eszena bihurtu dela.

Euskarak badu hitz bat laburra
Ta erraz dena ulertzen
Batzutan ixil esaten dena
Beste batzuetan ozen
Dena garden, dena zuzen
Erraz ulertu gaitzen
Eta edonork beharko luke
onartzeko adina sen
bai Iruñan, bai Gasteizen
denetan hitz berbera zen
EZ esatea ez al da aski
Behingoz geratu zaitezten.

Zorionean zoritxarretik
Izpitxo sortu hara!
Lur idorretik lore ederrak
Paradoxa berbera da
Gaindituz dugun ikara
Akabo hanken dardara
Ilun denean etxeratzeak
Ezin du bihurtu traba!
Amets berrien alaba
Errotik dena eralda
Beldurrak bandoz aldatuko du
Orain manada gu gara!

'Joxan Artze olerkaria'

Hizkuntzaren zaindaria
ta txori hegalaria,
iturri urtsu eta emankor
zuen emaria,
hitzetan kalakaria,
ondo josiaz haria,
entzute hutsa denontzat baitzen
zirrara garria.

Zutabe zuen kultura
eta hitzaren lilura,
txalapartaren hots zorrotzekin
ttan-ttakun ingura,
makilak, ohola, zura,
belarrirako onura,
herren zen tresna ekarri zigun
behar zen lekura.

Doinua: "Aizak hi, mutil mainontzi!". Egilea: Iñaki Agirresarobe Arzallus.

Patri zuen bilgunea
hausnarrerako gunea,
idatzi, entzun eta hitz egin
gustuko unea,
bere aukera xumea,
zionez begirunea,
geroztik ezin beterik dago
bere hutsunea.

Maite zituen bazterrak
jakin-minari eskerrak,
lanbro artean hezetutako
paraje ederrak,
Baztango malda okerrak,
ta Xiberoko eperrak,
olerkietan islatu zuen
hitzaren maizterrak.

Oriaren ertzean,
berak begia jartzean,
ibai arrea ikusten zuen
itxura latzean,
bide ilun ta beltzean,
poemetan aipatzean,
ezinegona idazten zuen
natura hiltzean.

Eliz dorre nagusia
edonondik ikusia,
Etxebesteren ankerkeriaz
urrez eraikia,
han indiarren bizia,
odolez zen eraitsia,
bere olerki entzutetsuan
adierazia.

Mikel Laboa laguna,
ta musikari kuttuna,
Artzeren hitzez makina doinu
sarritan entzuna,
herriz-herriko jarduna,
gogoz iritsi zaiguna,
orain diskotan gelditzen zaigu
euren oihartzuna.

Hiztunen erabilera,
iris dadin gorenera,
zeren bestela amilduko da
gogotik lurpera,
ez dezan izan galera,
berak zioen bezela,
dakienak hitz eginez soilik
doala aurrera.

Iruditeria berrien bila

Udako Euskal Unibertsitateak (UEU), Jakin Fundazioak eta Usurbilgo Udalak antolatuta, jardunaldi egunak ditugu egunotan. "Utopia 68/18. Iruditeria berrien bila" izenburupean, honako egitarau zabala osatu dute:

'Utopia 68/18, Iruditeria berrien bila' Uztailak 12, osteguna

■ 9:00-9:30 Harrera eta material banaketa.

■ 9:30-9:45 Lorea Agirre Dorronsoro (Jakin): Utopiari sarrra.

■ 9:45-10:45 Amaia Lasa (idazlea, poeta eta irakaslea): Nondik gatoz, non gaude.

■ 11:00-11:30 Atsedendia.

■ 11:30-12:15 Alba Garmendia (EHUko Filosofia Saileko doktoregaia): Utopia klasikoak eta berriak.

■ 12:15-13:30 Edu Apodaka (EHUko Soziologia irakaslea): Praxia, pragmatismoa eta utopia elkartzaren diren tokia.

■ 13:30-14:45 Bazkaria.



Iazko ikastaroko familia argazkia, Udarregi ikastolaren atarian egina.

BI EGUNEKO IKASTAROA

**"Alba Garmendia
EHUko Filosofia Saileko
doktoregaia "Utopia
klasikoak eta berriak"
hitzaldia eskainiko du
ostegun eguerdian"**

Zaintzaren utopia

■ 15:00-15:45 Uzuri Aboitiz (Universitat de Barcelonako

Gizarte Antropologia Saileko doktoregaia): Zaintzak erdigunera. Aukerak, arriskuak eta zenbait galdera.

■ 15:50-16:30 Bego Zearreta (Bizkaiko Zahar egoitzetako langile grebalaria): Zaintzaren aldeko borroka.

Uztailak 13, ostirala Utopia sozioekologikoa

■ 9.30-10:30 Iñaki Barcena

(EHUko Politika Saileko irakaslea): Eko-Sozialismo-Feminista, utopia berri bat?

■ 10:30-11:15 Anaiz Agirre eta Xabier Harlouxet (Bizi! mugimendua): Alternatiba burujabe bat lantzen.

■ 11:15-11:45 Atsedendia.

■ 11:45-12:30 Bego Huarte (Ongi Etorri Errefuxiatuak plataforma): Harrera herria nola antolatu.

Harria Hitz bisita gidatua

UEU-ren Jakin Jardunaldinen testuinguruan Harria Hitz bisita gidatua antolatu da osteguneko (uztailak 12). "Geuk ere, 60ko hamarkadara bidaiara (eta gogoeta) proposatuko dizuegu", adierazi dute antolakuntzatik. Usurbilen barrena eta Txokoalden:

■ 18:00 "Harria Hitz" bisita gidatua herrigunean.

■ 19:15 Txokoaldeko Txalapar-ta Txokoa ezagutzeko aukera.

Informazioa, erreserbak:

688 818 017

info@kultuor.pro

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.



txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

Zuen
publizitatea
hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Irailean, yoga ikastaroak Santuenean

Udan gaude bete-betean, baina batzuk hasi dira ikasturte berria prestatzen. Santuenea Kultur Elkar-teak yoga ikastaro berriak iragarri ditu. Aurten, berritasun batekin. Lehen aldiz, aeroyoga egiteko aukera egongo da.

Abelina izango da yogako irakaslea, Zestoako Sanatra Dhama eskolan ikasitakoa. Ikastoletan aritzen da eta haurrekin egin du yoga. "Hatha yogak gorputz fisikoarekin egiten du lan baina erabiltzen dituen teknikak arlo emozionalei eta mentalei eragiten die", Santuenetik aditzera eman digutenez. Arnasketa, gorputz-jarrerak, lasaitzea eta meditazioa dira lantzen diren teknikak.

Ikasturtea eskaintza berri batekin abiatuko da. Irailetik aurrera, aeroyoga ikasteko aukera egongo da. "Ilusio handiarekin antolatu dugu". Udalaren laguntza izan du Santuenea Kultur elkarteak, yoga mota hau egin ahal izateko, "Udalak Santuenea elkarteko lokala egitura bereziarekin hornitu duelako".

Aeroyoga, zer da?

Yoga tradizionalan oinarritutako metodoa da, baina hone-tan kulunka baliatzen da. Urte



Ikasturtea eskaintza berri batekin abiatuko da. Irailetik aurrera, aeroyoga ikasteko aukera egongo da.

AEROYOGA

Yoga mota hau egin ahal izateko, "Udalak egitura bereziarekin hornitu du Santueneko lokala"

batzuk badira metodo hau Europa eta Ameriketara hazten hasi zenetik.

Kulunka batean egiten den fitness, yoga edo pilates ariketetatik haratago doa aeroyoga: bizi-kalitatea hobetzen lagun

dezakeen teknika batean dantzaz; ez ditu soilik gaitasun fisikoak kualitatiboki garatzen (indarra, tonifikazio muskularra, abilezia, elastizitatea, edertasuna eta oreka), baita burukoak eta emozionalak ere. Arintasuna, memoria eta autoestima garatuz.

Metodo honek Hezkuntza Bikaintasuna Saria jaso zuen 2017an.

Hiru maila ditu:

■ Lehen maila. Pertsonen %99ak egin dezake. Zintzilikatze maila baxua du. Hel-

burua: erlajazioa, kulunkaren laguntzaz gorputzak esfortzurik ez egitea eta eramaten uztea.

■ Bigarren maila. Zintzilikatze maila ertaina. Helburua: posturaren zuzenketa eta heziketa, bizkar-hezuraren malgutasuna, muskulatura definitu, erlajazio osoa.

■ Hirugarren maila. Zintzilikatze maila altua. Imaginazio eta sormenezko lana egiten da. Helburua: burua, gorputza eta imaginazioa estimulatzea.

Saioaren egitura

■ 60 minutuko saioak.

■ Aeroyogak egokitze garai bat eskatzen du, kulunkarekin lanketa egokia lortzeko.

■ Lehenengo klaseetan, gorputz-jarrerak landuko dira, gorputzaren zati bat kulunkan eta bestea lurrarekin kontaktuan ipini, mugimendu lasaia lortzearren.

■ Hurrengo klaseetan, aireko posturak gehitzen joango dira lurretik gertu egonik. Horrela, tonifikazioa eta giharrak definitzen joango dira, "artikulazioen flexibilitatea eta erlajazio sakonagoa lortuz".

■ Beste modalitateetan ez bezala, aeroyogan musikoterapia, aromaterapia, litoterapia eta fitoterapia erabiltzen dira.

Matrikulazioa Lanbide Heziketan

Aurrematrikulazio kanpaina igarota, 2018-19 ikasturterako matrikulatzeko garaia dator orain Lanbide Heziketa osora. Uztailearen 12tik 18ra bitarte bideratu beharko da izen ematea, bai Zubietako Lanbide Eskolan, baita Atallun kokaturiko Oinarritzko Lanbide Heziketan ere. Usurbilgo Udaletik berri eman dutenez, 30 gazteek eman zuten izena aurrematrikulazio kanpainan. Bi ziklo eskaintzen ditu DBHko graduatua ez duten 15-17 urte arteko gazteei zuzenduriko

Oinarritzko Lanbide Heziketak; sukaldaritza eta jatetxe arloko oinarritzko lanbide-titulua, eta ile-apainketa eta estetika arloko titulua. Informazio gehiago: olh.usurbil.eus, 943 36 04 65, lhi@usurbil.eus

Zubietako Lanbide Eskolan berriz, erdi eta goi mailako zikloak; elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, administrazioa, energia eta ura. Aurrematrikulazio kanpainako behin behineko zerrendak uztailearen 5ean argitaratu zituzten. "Aurre-

matrikula egin eta onartua izan bazara, zorionak! Baina gogoratu matrikula konfirmatzeaz eta irailen indarberrituta eta gogotsu etortzeaz!", adierazi diete ikasleei Lanbide Eskolatik. Aurrematrikula egin ez duten edo hautatutako zikloan onartuak izan ez direnentzako oharra. "Lasai! Matrikula garaian esleitu gabe geratutako plazetan izena eman dezakezu, aztertu B plan guztiak!". Informazio gehiago: lhusurbil.eus, 943364600, eskola@lhusurbil.eus

NOAUA!ko bazkidetza kobraketa

Zuen ekarpenei esker aurrera ateratzen da proiektu hau. Eta orain arte bezala, aurrera begira ere ezinbestekoak izango zarete. NOAUA! kide ez bazara, animatu eta kultur elkarteko egoitzara etorri. Segituan tramitatuko dizugu.

Jada NOAUA! Kultur Elkarteko kide zaretenontzako oharra: urtero moduan, uztailearen 15etik ekingo diogu kuota ordainketei.

Bazpi, lehen postuetan

Sasoiko dabil Buruntzaz-
pi txirrindulari taldea.
Uztaila hasierako aste-
buruan Zeberion jokaturiko
Euskadiko Txapelketan, ka-
deteen lehen urteko mailako
Beñat Carbayedak bosgarren
eta kadeteen bigarren mailako
Asier Pozok hamabosgarren
postuan amaitu zuten. Biha-
ramunean, Leonen gidari ba-
tek harrapatu eta hildako Vi-
llabonako bikoteari jazotakoa
salatzeko eginiko txirrindulari
martxaren ostean, Tolosako 15.
Patxi Rodriguez Memorialean,
hirugarren postuan sailkatu
zen Beñat Carbayedeta eta lau-
garrean Asier Pozo.



Tolosako 15. Patxi Rodriguez Memorialean hirugarren postuan sailkatu zen Beñat Carbayedeta eta laugarrean Asier Pozo.

Beñat Carbayedeta eta Asier Pozo, Espainiako Txapelketan

Igaro berri den asteburu hone-
tan bestalde, Euskadiko Sele-
kzioarekin Orensen (Galiza),
Baños de Molgasen ospatu-
riko Espainiako Txapelketan
parte hartu dute Asier Pozo
Notariok eta Beñat Carbaye-
da Urruzolak. Uztailaren 6an
erlojuz kontrako taldekako
proban brontzeko domina
irabazi zuten. Uztailaren 8ko
errepideko 61 kilometroko
proban bestalde, Pozok bron-
tzeko domina irabazi zuen
eta Euskadiko selekzioak
urrezko domina irabazi zuen.



Asier Pozok eta Beñat Carbayedak erlojuaren aurkako taldekako proban brontzeko domina irabazi zuten Euskadiko Selektzioarekin.

Ohorezko matrikula Oriarte Institutuan

Lasarte-Oriako Oriarte Institu-
tutik iritsi zaigu ondoko oha-
rra. "2017-2018 ikasturteko
batxilerreko promozioan 78
ikasle izan ditugu. Espediente
onena lortu duten lau ikasleei
Ohorezko matrikula eman zaie.
Hauek izan dira: Ane Solano
Gaztañaga, Maria Hernandez
Arregi, Xalbador Otxandorena
Ieregi eta Enara Eizagirre Hue-
ta". Enara usurbildarra da. Zo-
rionak!



Argazkia Batxilerreko promozioaren agurreko festan egina da.



Asteburu pasa

Errioxan

Hortxe duzue asteburuan
Errioxan barrena ibili den
mendizale koadrila. Valga-
ñonen hasi eta Pancarbon
amaitu zuten bi eguneko
irteera egin zuten Andatza
M.K.T.-k antolatuta bildu zi-
ren lagunok. Udako etenal-
diaren ostean, aldaketarik
ez bada, hurrengo irteera
irailaren 9rako dute iraga-
rria.

■ Irailak 9: Gipuzkoako Bi-
rako seigarren etapa, Arla-
ban-Arantzazu.

■ Urriak 12-13-14: 3 egun-
eko irteera Pirinioetara:

-Urriaren 12an:

Santa Ana-Foratón-Lizara.

-Urriaren 13an:

Lizara-Bisaurin-Candanchu.

-Urriaren 14an:

Candanchu-Aspe-Lizara.

■ Azaroak 11: Otsondo-
Bidarrai.

■ Azaroak 22, 23, 25:

Mendi Astea:

-Azaroak 22, 23:

proiekzioak Sutegin.

-Azaroak 25: mendi irteera.

■ Abenduak 16: Hernio
mendian ibilaldia, goiz
pasa. Alkiza-Asteasu.

Informazio gehiago:

andatza.com.

Larunbat honetan, Usurbil K.E.-ren batzarra

Usurbil Kirol Elkarteak ur-
teroko ohiko batzarrerako
deia egin du. Larunbat hon-
netarako (uztailak 14) finka-
tu dute hitzordua. Lehen
deialdia goizeko 11:00eta-
rako egin dute Potxoenean.
Bigarrena ordu erdi beran-
duagorako, 11:30ean.

ETXEBIZITZA

Salgai

Erreka Txiki 13. Duplexa salgai Usurbilen. 132 metro², 80 solairu nagusian; 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. Garaje itxia etxerako zuzeneko sarbidearekin eta trasteroa. 320.000 euro. 646 305 465.

126m²ko pisua salgai Aginagan, 65m²ko ganbararekin. Oso eguzkitsua, dena kanpoaldera. Berritu beharra. Prezioa 186.000. 659257889 edo 680742504.

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro² lokala salgai Munalurran. Etxea bihurtzeko baldintzak betetzen ditu. Prezioa: 68.000 euro. 943 916 182 (Jon).

90 m2 pisua salgai Txaramunto kalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11 m2- terraza, 8 m2 trastelekua eta bertan 33 m2-ko garajea erosteko aukera. 606 877 856

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, kalerakzioa. Dena berritua. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukaldea, jantokia aparte eta trastelekua. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trastelekua. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berritua, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosi nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Alokairuan

Alokairuko pisu baten bila gabilta. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Pisu bat alokatzen da Santuanean. Tel. 679 366 415

Abendurako pisua alokairuan hartu nahi dut, Aginagan, Usurbilen edo Orion. 690 367 952

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

Logela bat alokatuko nuke. Mutil langilea, serioa eta arduratsua. 651 197 381 / 632 138 393

Alokatzeko pisu merke baten bila gabilta, bikote bat gara, biak lanarekin, informea ditugu. 675595294

Duplex bat alokatzen da Txaramunto kalean. 3 logela, 2 komun,

sukaldea, egongela, bulego bat, terraza bat eta garajea. 625 702 807.

Santuanean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Negoio-lokala bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 getakto etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garaiek

Garaje itxi bat alokatzen da Erre-

katxiki kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m2-ko lokal/garaje bat Abegalden. Autoak sartzeko atearakin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekaxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosi nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kentuene jatetxean jantokirako zerbitzari bat behar da asteburuetako. Euskara jakitea garrantzitsua. kentuene@kentuene.com

Aseguru sektorean espezializatua den gestore personal baten bila gabilta. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaocidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Neska euskalduna, Usurbilen umeak zaintzen egingo nuke lan udara honetan: ekaina, uztaila edota abuztuan (goiz, arratsalde edo orduka). 617263123.

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Etxean, ospitalean, gauean, externa bezala, orduka edo asteburutan. 671763558

Lan bila nabil interna edo exter-

na bezala. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. Urtebeteko esperientzia. Arduratsua, erreferentzia onekin. 666 295 450

Garbiketa egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko. Esperientzia duen neska, arduratsua. Berehala lanean hasiko nintzake. 637 106 649

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko. Ospitalean, etxean, gauean. Garbiketa orokorrean ere bai. 671 763 558

Pertsona helduak zainduko nituzke, asteburu, jai egunetan eta gauean, baita erietxean ere. 606 661 048 / 943 404 015.

Lan bila nabil etxeak garbitzen edo umeak zaintzen, ekaina eta uztaila, goizetan eta Usurbilen. 608201745.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna, externa edo orduka. 632 541 872.

Emakume bat naiz, eta lan bila nabil. Interna, externa, orduka. Helduak edo umeak zaintzen. 676 188 411

Neska bat naiz, eta lan bila nabil. Orduka lan egingo nuke. Helduak edo umeak zaintzen. 619 355 819

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632090146

Mutil gazte bat naiz, eta lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, hospitalean, baserrian. 632793747

Lan bila nabil. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta erreferentziak. 662 910 181

Interna bezala lan egingo nuke. Esperientziarekin. Paperak eguneratuta. Tel 682 723 520

Emakume bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Geriatriako eta lehen laguntzako ezagutzak ditut. Esperientzia etxeko lanetan eta antolamenduan. Erreferentziak ditut. 612 495 429.



Zortzi urte irrifartsu zortzi izpi lzarrek Zorionak, etxeokoen partez



Zorionak Noa!
Uztailaren 15ean beteko dituzu 4 urte. Ondo pasa urtebetetze eguna. Muxu handi bat!!



Zorionak Aitzol eta Lur! Zer, KKola ona dagoela??? Buagggg!!
Zorionak bioi!!!



Zorionak Noa!!
Uztailaren 3an, gure etxe neskatzak 9 urte bete zituen. Muxu pottolo bat etxeokoen partetik. Muuaa!!!

Heriotzak

Enrike Uli Berakoetxea
88 urterekin hil zen uztailaren 2an Usurbilen



Ramoni Izaguirre Otamendi
70 urterekin hil zen uztailaren 8an Aginagan



OHARRA: 2018ko uztailaren 20an aterako dugu udako oporren aurreko azken astekaria. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: uztailaren 16a astelehena, eguerdiko 11:00etan. Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Emakume bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Goizez edo arratsaldez. Esperientzia daukat. 690 336 444.

Lan bila nabil. Orduka eta arratsaldez. 663 776 93

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen, gauetan, asteburutan, externa bezela edo garbiketa lanetan. 671 763 558.

Interna moduan lan egin nahi dut adinekoak zaintzen. 25 urteko lan esperientzia dut. 633 73 64 26

Lan bila nabil, etxeak garbitzen, etxeko lanak egiten edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia ere erreferentziak. Tel. 632 576 258

Mutil arduratsua baserriko lanetarako eskaintzen da. 661118892.

18 urteko neska euskaldun herritar esperientziaduna naiz. Aste osoan zehar arratsaldetan umeak zainduko nituzke. 688817429.

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarako egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesez eta frantsesez goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketarako. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralera. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen,

garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketarako lan egiteko. Irterna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketarako, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarean ezagutzen). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxeko ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeko lanak egiten edo garbiketarako, umeak edo pertsona helduak zaintzen edo sukaldean lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

BESTELAKOAK

Mutur txuri urdindun eta horidun perikito bana desagertu dira. Aurkitu badituzu deitu: 619 817 460.

Kale Nagusian, kazadora argi bat aurkitu da. Zurea bada, Aizpurua Okindegitik pasa, bertan dago.

Erloju bat galdu dut Santuenean. GPSa eta pultsometroa. Souto Gramin markakoa, beltza. Aurkitu baduzu deitu: 662 039 829.

Gerezi koloreko logela bat salgai. Egoera onean. Ohea, idazmahai, armairua eta apal bat. 400 euro. 600 320 967

Udarregi Ikastolan klase partikularrak emateko jende bila gabiltza. Interesa baduzu pasa ikastolatik edo deitu! 943 36 12 16

Errege sagar ekologikoa eta etxeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udalzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Ambulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Iehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Kalezar Eguneke Zentroa.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Arrate Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
		Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 13 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 16 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Uztailak 12 - Uztailak 22

Osteguna 19 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 20 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 22 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda uztaila

12 osteguna

- **UEU-Jakin Jardunaldia.** Egun osoz. Informazio gehiago eta izen ematea: ueu.eus
- **"Harria Hitz" bisita gidatua.** 18:00etan, Mikel Laboa plazatik abiatuta.
- **Laboaren Uztaila: Joseba Irazoki.** 22:00etan, Mikel Laboa plazan.

13 ostirala

- **UEU-Jakin Jardunaldia.** Egun osoz. Informazio gehiago eta izen ematea: ueu.eus

14 larunbata

- **"Sagarrondotik sagardora" ikastaro zikloa.** 09:00-13:00 artean, Potxoenean.
- **Usurbil KEren batzarra Potxoenean.** Lehen deialdia 11:00etan, bigarrena 11:30ean.

'Sagarrondotik Sagardora' ikastaroaren saio berri bat

Alkartasuna Kooperatibak, Sagardoaren Unibertsitateak, Bizi Sagardoak eta Usurbilgo Udalak otsailaz gozotik abian duten ikastaro praktikoa azken txanpan da. Amaitzeko bi saio baino ez dira geratzen. Lehenengoa, larunbaterako (uztailak 14) iragarri dute, 09:00-13:00 artean Potxoenean:

- Uztailak 14: "Fruitu arbolen udako edo begiko txertaketa", Josu Osarekin.
- Irailak 8: "Sagarraren heldutasun analista. Etxean sagardoa egiteko hastapenak", Aitor Etxeandia eta Egoitz Zapiainekin.

Izen ematea, argibideak: 943 361 114
alkartasuna@usurbil.com
alkartasuna.eus



Josu Osak fruitu arbolen udako txertaketaz arituko da larunbat honetan, Potxoenean.

Berrialagun kanpainaren zozketa, astelehenean

Berria egunkariaren lagunak diren herriko 31 establezimenduetan azken asteotan erosketak egiten aritu zaretenok adi. Astelehenean (uztailak 16), egingo dute "Erosi Usurbilen Berriaren eskutik" kanpainako zozketa. 500 euroko bi sari zozketatuko dituzte, aipatu saltokietan erosketak egitearen truke zozketarako

boletoak eskuratu dituzuenon artean. 300 euroko hirugarren sari bat ere banatuko dute, Hurbilagoren Tipi Tapa ekimean pintxoak dastatuz, ekimen honen txartelean zigiluak bildu eta zozketarako entregatu dituzuenon artean. Zorte on! Sarituen izen abizenen berri, hurrengo astekean jasoko duzue.

Datozenak

Uztailearen 23an, Furgobaratza Baratze Parkean

Gipuzkoako Baratze Parke sarean direnek aholkularitza zerbitzu hau jasoteko aukera dute. "Baratzeak pil-pilean dauden garaietan, Furgobaratzak hileko bisita bat egiten du Sareko Baratze Parketara: aholkuak ematen dizkigu, sortzen dizkigun arazoei erantzuten digu, ditugun zantzak argitzen dizkigu edo praktika egokiak ere proposatzen dizkigu". Uztailearen 23an Usurbilen izango da, Agerreazpiko parkean.

- Uztaileak 23 astelehena.
- Orduetgia: 18:00-19:30.
- Tokia: Usurbilgo Baratze Parkea.
- Zehaztasunak: Furgobaratza Agerreazpiko Udal Baratze Parkean.

Informazio gehiago:

ekogunea.eus
baratzeeparkea.ekogunea.eus



Arratsalde egongo da Agerreazpiko parkean.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

ALDAMU

KONPONKETAK

KALE NAGUSIA 10- atzekoaldea
943 372 795

ZALDIGAIN

ERREMENTARIA

- Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
- Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

 **Etorkizuna da**

Etorkizuna da gure seme-alabena

Etorkizuna da jasangarria

Etorkizuna da hezkuntza

Etorkizuna da emakumezkoena

Etorkizuna da geurea

Etorkizuna da berrikuntza

Etorkizuna da kohesio soziala

Etorkizuna da euskara

Gipuzkoaren etorkizuna da
guztion artean eraikitzen
duguna.

Parte hartu
gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz



UrbilBox

Zure planaz goza ezazu deskontuarekin.

OcioPlan



BAZKARIA EDO AFARIA +
ZINEMARAKO SARRERA

PartyPlan



VIPS SMART MENUA (12 URTE
ARTE) + ZINEMARAKO SARRERA

SuperPlan



TXIKIGUAY SARRERA DENBORA
MUGAGABEA + ZINEMARAKO
SARRERA

BeautyPlan



ILEAPAINDEGIA + MANIKURA
+ MAKILLAJE EKITALDIA

PrettyPlan




MAKILLAJE SAIOA ETA
AHOLKUAK + 50€-KO OPARI
TXARTELA MODAN

ShoppingPlan



TXIKIGUAY SARRERA DENBORA
MUGAGABEA + 50€-KO OPARI
TXARTELA MODAN

UrbilBox-ak lortu ditzazkezu www.urbil.es web orrialdean,
Bezeroenganako Arreta Gunean edo honen ondoko Totem interaktiboan.



Benetako
UNEAK

urbil.es